



PRENTSA OHARRA

2025-2029 epealdiko Euskara Plana diseinatzeko parte-hartze prozesua abiatu du Aguraingo Udalak

Udal Gobernu taldeak gaurtik urte amaierara arte publiko egin duen galdetegia betetzera animatzen ditu Aguraingo herritarrak, izan ere, hau baita prozesuari hasiera emateko ekimen garrantzitsuena

Agurain 24-12-09. Gaur egun indarrean dagoen Aguraingo Euskararen Plan Estrategikoaren epealdia amaitzen ari da, eta 2025-2029 urteetarako indarrean egongo den plana diseinatzeko hasi da Aguraingo Udala. Horretarako parte-hartze prozesua abiatu da gaur bertan, eta Aguraingo herritarrei eskatuko zaie galdetegi bat bete dezaten datozen lau asteetan (<https://labur.eus/aguraineusk>). Izan ere, herritarren ahotsa izango da plan berriaren oinarria.

Prozesuak izango dituen bi faseetan lehenaren parte da galdetegi hori, eta “Nondik gatoz?” galderari erantzungo diote bertan. Aurreko planaren balorazio bat egingo dute, eta galdetegia herritarren artean zabalduko da, ahalik eta iritzi gehien biltzeko asmoz. Herritar batzuei elkarrizketa xeheagoak ere egingo zaizkie, iritzi horiek gertutik ezagutzeko.

Bestalde, Aguraingo datu soziolinguistikoen bilketa egin da, euskararen egoera zehatza zein den jakiteko. Horietatik ateratako emaitzekin diagnostiko bat osatuko da.

Ondoren, “Nora goaz?” fasea abiatuko da. Fase honetan parte-hartze lan-mahaiak izango dira ardatz, eta urtarrila eta otsaila bitartean egingo dira. Herritarrak hainbat arlotako lan-mahaietan bilduko dira eta proposamenak egin ahal izango dituzte, gako nagusiak identifikatzearekin batera. Edonorentzat irekiak izango dira, eta proposamenak egiteko erabiliko dira. Urtarrilaren 22an, 28an eta 29an eta otsailaren 5ean eta 12an izango dira lan-mahai horiek, Udaletxean bertan.

Horiek amaituta, parte-hartzaile guztiak azken saio batean bilduko dira, jasotakoen inguruko iritziak entzuteko eta plana sortzeko azken ideiak biltzeko. Azken saio hori martxoan izango da. Horrela, Aguraindar guztien hitza entzunda diseinatuko da hurrengo urteetarako Aguraingo Euskararen Plan Estrategikoa.

Galdetegia euskaraz eta gaztelaniaz betetzeko, esteka bi daude eskuragarri:

–<https://labur.eus/aguraineusk>

–<https://labur.eus/aguraingazt>



NOTA DE PRENSA

El Ayuntamiento de Agurain inicia un proceso participativo para el diseño del Plan de Euskera 2025-2029

El gobierno municipal anima a toda la ciudadanía a rellenar el cuestionario online publicado hoy y que, hasta fin de año, será el punto de partida de todo este proceso

Agurain 09-12-24. El Ayuntamiento de Agurain está finalizando el periodo del Plan Estratégico del euskera que está en vigor desde el 2021 y ha comenzado a diseñar el plan que estará vigente durante los años 2025-2029. Para ello se ha iniciado hoy mismo un proceso participativo en el que se pedirá a las y los vecinas de Agurain que completen un cuestionario durante las próximas tres semanas (<https://labur.eus/aguraingazt>). De hecho, la voz ciudadana será la base del nuevo plan.

Este cuestionario forma parte de la primera fase del proceso, en la que se responderá a la pregunta “¿De dónde venimos?”. El cuestionario se difundirá entre las vecinas y vecinos de Agurain con el fin de recabar el mayor número de opiniones y realizar una valoración del plan anterior. También se harán entrevistas más detalladas a algunas personas del pueblo para conocer de cerca estas opiniones.

Por otro lado, se ha realizado una recopilación de datos sociolingüísticos de Agurain para conocer la situación exacta del euskera. Con los resultados obtenidos se completará un diagnóstico.

Acto seguido, arrancará la fase “¿A dónde vamos?”. En esta fase se centrarán las mesas de trabajo participativas, que se desarrollarán entre los meses de enero y febrero. La gente de Agurain se reunirá en mesas de trabajo de diferentes áreas y podrán hacer propuestas, al tiempo que identificarán las claves principales. Las mesas serán abiertas a cualquier persona y se utilizarán para realizar propuestas. Estas mesas de trabajo tendrán lugar los días 22, 28 y 29 de enero y 5 y 12 de febrero en el Ayuntamiento.

Concluidas las mismas, las y los participantes se reunirán en una última sesión para escuchar sus opiniones sobre las recibidas y recoger las últimas ideas para la creación del plan. Esta última sesión tendrá lugar en marzo. Así, el Plan Estratégico del euskera de Agurain se diseñará a partir de las palabras de todos y todas las Aguraindarras.

Para la cumplimentación del cuestionario en euskera y castellano existen dos enlaces disponibles:

- <https://labur.eus/aguraineusk>
- <https://labur.eus/aguraingazt>